

## I. Etxeleku-A. Madariaga Baiona

Jende eta nazioen arteko errespetuzko harremanaren alde mundua kurrutzen du. Leonard Crow Dog Jr (Rosebud, Dakota hegoaldea, 1981) Lakota populua zanpatuen enbaxadore gisa jin da.

### Zer dio lakotak?

Kultura guzietan bezala, kultura anglosaxoi menderatzailearen eragina ikaragarria da. Eta, maleturki, *boarding* eskolek indiarrok ongi erazi gaituzte, indiarren «ongi» hezteko xedez, amerikar «onen» egiteko, eta lakota hiztun osoen adinarekin batez beste-koa 60 urtekoa da.

Hala ere, bada berpizte bat, kulturalki nola hizkuntzaren aldetik ere, sustut, *Lakota Language Consortium*, egiturari esker. Konparazio, Dakota iparraldean, bada dakota baizik ez den hezkuntza sistema. Jende franko bada lakota dakiena, baina ez dena aise mintzo.

Kulturaren aldetik, bada manera anitz, zeremoniala edo ospakizunak ote diren. Familia eta nihaur tradizioari lotuak gara, eta honetan jende gehiago gara; dimentsio izpiritualari atxikiak.

### Ba ote da eskolaz gain tresnarik hizkuntzari buruz?

Bada praktika zenbaiten beharra, preseski, artista gazteei begira, proiektu ekarleak. Halarik ere, bada artista biziki, eta entseatzaren gara beren gureganatzen. Haur frankok ez dute interesik musika tradizionalari; beraz, entseatzaren gara gure hizkuntza barneratzen. Hala, rap edo hip hop artistak baditugu. Gazteen begietatik, tradizioa oraingo medioekin ikus dezaten, haien gustagarri eta alde sobera errepikakorra edo zaharkitua saihesteko.

Entseatzaren gara gure bide tradizionalak berritzen, lakota izatearen harrotasuna berriz emateko, adibidez, gazteek utz ditzaten ileak pusatzen, moztu gabe, nortasun ikur azkarra baita.

### Zein da Estatu Batuen administrazioaren hizkuntza politika? Ba ote du lakotak ezagutza ofizialik?

Zaila zait haien izenean mintzatzeko, biziki zanpatzaileak izan baitira elkarrizketen hastapenetik; gure populua bera da borrokatu hizkuntzaren atxikitze, eta bere eskubideen alde. Zenbaitetan, leinuaren beraren baitan.

Unibertsitate lakota badugu, baina diruaren araberakoa da, usu pribatuak baitira sos ekarleak. Horiatarik batzuk tribuenak dira, beren sostengua erakusten



INAKI ETXELEKU

## «Ez gara hedabideetan deskribatzen gaituztenak»

**Leonard Crow Dog Jr** Siux Lakota tribuko buruzagia

Siux Dakota populua osoaren mintzoa ekarri du Euskal Herrirat Leonard Crow Dog semearen ahoak. Estatubatuarrek «erazi» zizkieten hizkuntza eta kultura berpizten ikusten ditu.

dutenak hizkuntzaren babesteko eta gartzeko. Baina aldi berean gobernamentu tribalak ez dira beti tradizionalistak.

### Gara dezakezu hori?

Baditugu hautetsiak hautatuak izan eta beren estatusaz baliatzen direnak zernahiren egiteko. Haatik, badira ere tradizionalistak, komunitateari onura dakarkiotenak. Gainera, hori ere tribu kontseiluak. Hala, bada programa franko gobernuen fondoen menekoak direnak; federalak edo estatutalak, laguntza programak. Bada desberdintasunik tribu liderraren, tradizionalaren eta pertsona

«Xurgatua eta erazua izateko puntuan ginen; arrazismoaren eskalan animaliak bezala ibili gintuzten, apalago ere»

«Programa franko bazuten indiarrok hiltzeko; 'boarding school' misio eskolak ziren makurrenak»

tradizionalaren artean, erran nahi dut tribu gobernamentu guziak ez direla oinarrituak ber historia edo fondoen. Edozein gobernamentuk bezala, nazio subiranotan den aldetik, barne konstituzioa dute. Entzuten badituzu tribu kontseiluetako eztabaidak, biziki etsigarria da, ahobatezkoa bakanetan gertatzen baita.

### Mezurik dakarkiguzu Europara?

Bigarren aldia dut Frantzian, eta lehena Euskal Herrian. Ekartzen dudana mezua hauxe da: ez gara hedabideetan deskribatzen gaituzten horiek bezalakoak, cowboy eta indianoen film horietakoak bezalakoak.

Ondorioz, partikulariki kontent naiz, bi eskola bisitatu baititut, hala nola ikastola bat. Hartan ikusi dut gazteen kontzeptua, indiarrek ere eskolar eta epizeriarat baitoaz, beren gurasoen gisan. Horrek hautsi guren du denboran kokatua den irudiarekin; izatearen irudia oraingo munduan dinamizatze baliu du.

### Garutzen ahal duzu otoi geroak duten garrantzia zuentzat?

Guretzat, haurrak garrantzitsuenak dira, sakratuak dira, haurren artean baitira biharko liderrak. Hala, baitezpadakoa zaigu haurrei oroitaraztea nor diren eta nondik datozen. Nahi duzeren izan daitezen jatorrizkoa izateaz eta duten ondareaz. Eta hitz moderno bat baliatuko dut: cool, zeren eta nahi baitugu, betiere, senti dezaten cool dela indiarra izatea. Aunitzek badute telebistako eragina, musika bideoklipak

ikustearekin, eta baditugu sortez hemengo aktoreak. Hala, rol horiek ikustean, modeloak dira, eta haurrek aita, ama edo osaba bat filmetan, musikan edo ezaguna dakusatelarik, interesgarria da oharreza badela manera norberak bere ametsa betetzeko.

### Wounded Kneeko 1973ko gertakariak zer herexa utzi diete belaunaldi berriei?

Xurgatua eta erazua izateko puntuan ginen, eta arrazismoaren eskalan animaliak bezala ibili gintuzten, apalago ere. Esklabotzaren garai afro-amerikarrak baino gutiago kontsideratuak ginen. Programa franko bazuten indiarrok hiltzeko, makurrenak, *boarding school* misio eskolak eta erresidentziak ziren. Garai hortan jasandakoa ikaragarria izan zen, egoera ezin adieraziak gertatu ziren, haurrekiko eta jende gaztearekiko gehiegikeria

riak pairarazi zizkieten, orain 60-70 urte dituztenak bizi osorako markatuak utzi zituzten. Beren heziketarik, baina baita egoitza horietan jasan tratamendu txarretatik ere.

Hala, Wounded Kneeko okupazioetan, beharrik nazioarteko hedabideek lan egin baituzten. Haien esker, mundu osoak entzun gintuen, bertze gisaz, Ameriketako Estatu Batuak historia ezabatzaren ari ziren. Haien medioz, gure boza entzun ahal izan da mundu osoan. Italiako adiskide on bat oroitzen da orduan zuela lehen aldiz telebistan ikusi zinezko indiar bat bizirik.

Wounded Kneetik landa, indiarrok berpiztu ziren, izatearen harrotasuna bera eta jendea galdigiten hasi zitzaizen amama eta aitaitari nondik heldu ziren, txirikordak berriz eramaten hasi ziren, beren genealogia eta ondareak hurbildu ziren. Aita, orduan, lider espirituala zen; harrotasun espirituala ekarri zuen, okupazioan berean ospatu zeremonietara itzuli nahi genuen artean, espirituaren dantzan, konparazio. Gainera, Mendebaldeko eraginatik emazteak biktimizatuak izaten ari ziren tradizionala ezzen harreman klase bat zabalduz; gure emazteen harrotasuna ere berpiztu zen.

Hala, gure ama, zentzu horretan, matriarkatuaren birsortzailetarik bat izan zen, hori baitu gure jendartek oinarrian, eta hortik ditugu indarrak biltzen, guregun ere.